




DURANGO
Udala • Ayuntamiento


**ERAIKUNTZA-LANAK EGITEAN INGURUMENA
HOBETO ZAINTEZKO UDAL-ORDENANTZAREN
ONESPENARI BURUZKO ESPEDIENTEA**

- Hasierako onarpena: 2012.11.27 Osoko Bilkura
- Iragarpenaren argitaratzea: BAO, [235. zk., 2012.12.10.](#)
- Alegazioak: Ez.
- Testu osoa argitaratzea: BAO, [21. zk., 2013.01.30.](#)
- Indarrean sartu: 13.02.15.




AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPEN A	4
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	6
1. artikulua. Xedea	6
2. artikulua. Aplikazio-eremua	6
3. artikulua. Definizioak	6
II. KAPITULUA. ERAIKUNTZA-LAN GUZTIEK BETE BEHARREKO ESKAKIZUN OROKORRAK	7
4. artikulua. Ordutegia	7
5. artikulua. Lanen prestakuntza	7
6. artikulua. Ibilgailuak eta makineria	8
7. artikulua. Klean lanak egin bitartean kontuan hartu beharreko alderdiak	9
Hautsa sorrarazten duten lanak	9
Hormigoi-garraioa	9
Amiantodun materialak	9
8. artikulua. Eraikuntza-lanak eragindako zarata	10
9. artikulua. Soinu-presioaren mailak	10
Makineriak eragindako soinu-presioaren mailak	10
Kaleko lanen gehieneko soinu-presioaren mailak	11
Etxebizitzan barruko eraikuntza-lanen gehieneko soinu-presioaren mailak	11
10. artikulua. Baimen berezia	11
Gehieneko soinu-presioaren mailak gainditu ahal izateko salbuespena	11
Lanak ordutegitik kanpo egin ahal izateko salbuespena	12
11. artikulua. Garbiketa	12
12. artikulua. Eraikuntza- eta eraisketa-lanetako hondakinen kudeaketa	13
Edukiontzia eta zakuak	13
Lurren eta hondakinen garraioa	14
Amiantodun materialak	14
III. KAPITULUA. PROIEKTUA BEHAR DUTEN ERAIKUNTZA-LANAK BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK	14
13. artikulua. Arrisku-mailak	14
14. artikulua. Eraikuntza-lanak hasi aurretik aurkeztu beharreko dokumentuak	15
15. artikulua. Arrisku txikiko eraikuntza-lanak bete beharreko eskakizun gehigarriak	16
16. artikulua. A motako arrisku ertaineko eraikuntza-lanak bete beharreko eskakizun gehigarriak	16
17. artikulua. B motako arrisku ertaineko eraikuntza-lanak bete beharreko eskakizun gehigarriak	16
18. artikulua. Arrisku handiko eraikuntza-lanak bete beharreko eskakizun gehigarriak	17
19. artikulua. Hirugarren batzuei eragozpenik ez sortzeko prebentzio-neurriak	17
IV. KAPITULUA. IKUSKAPENA, ZAINTZA ETA KONTROLA	18
20. artikulua. Neurriak betetzen diren ikuskatzeko lana	18
21. artikulua. Kautela-neurriak	18
22. artikulua. Betearazte subsidiarioa	18
V. KAPITULUA. ZIGOR-ARAU BIDEA	19
23. artikulua. Arau-haustea eta zigorrak	19
23.1. artikulua. Arau-hauste arinak	19
23.2. artikulua. Arau-hauste larriak	19



23.3. artikulua. Arau-hauste oso larriak.....	20
24. artikulua. Arduradunak.....	21
XEDAPEN IRAGANKORRA	21
AZKEN XEDAPENA	21
I. ERANSKINA: proiektupeko lan-jarduerek ingurumenean izan dezaketen eragin-arriskuaren matrizea	22
II. ERANSKINA: eraikuntza-lanak ingurumenean eragin txikiagoa izateko proposamenak	23
III. ERANSKINA: lan-eremuetako aldi baterako hesiek eragin akustikoa murrizteko bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak	26



ZIOEN AZALPEN A

Europar, 2008/50/EE Zuzentarauak airearen kalitatearen gaineko helburuak eta helburu horiek lortzeko neurriak deskribatzen eta eguneratzen ditu, eta dokumentu bakarrean biltzen, xedetzat harturik ingurunekeo airea kalitatekoa izatea eta atmosfera garbiago egotea.

Ingurunekeo zarata ebaluatzekeo eta kudeatzeko 2002/49/EE Zuzentarauak, berriz, estatuetakeo legedia zehaztekeo beharrezkeo esparrua eratzen du, eta Europar Batasuneko kide diren estatuetan ingurunekeo zarataren iturriak aztertzekeo metodologiak eta haiek kudeatzeko irizpideak bateratzeko oinarriak ezartzen ditu.

Azkenik, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkeo azaroaren 15eko 34/2007 Legeak xedatzen du toki-entitateei dagokiela erabiltzea berariazkeo legediak airearen kalitatea eta ingurumenaren babesa ziurtatzeko egokitzen dizkien eskumenak baita Espainiako estatuko oinarrizkeo legediak eta autonomia-erkidegoek gaiari buruz ematen duten legediak egokitzen dizkietenak ere. Alde horretatik, ordenantza honen bidez, Durangoko Udalak, bere eskumenen esparruan, lege horretakeo eta hura garatzeko arauetakeo xedapenetara egokitu nahi ditu kaleak garbitzeari buruzkeo ordenantzak.


Bestalde, jarraian zehaztuko den udal-araudia egituratzeko, oinarritzat hartu dira bai Zaratari buruzkeo azaroaren 17ko 37/2003 Legea bai haren ondotik hura garatzeko eman dituzten arauak —bereziki, 1367/2007 Errege Dekretua, zonazio akustikoari, kalitate-helburuei eta isurketa akustikoei dagokienez gehieneko muga ezartzen baitie immisioei, pertsonen osasuna babeste aldera—.

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren eta haren ondotik 2002–2020 aldirako prestatutakeo Garapen Iraunkorren Euskal Ingurumen-estrategiaren helburu bat da “ingurugiroko eraginak ahalik eta gehien murriztea, jardueren ondorioak aurrez ebaluatuz eta zuzentzekeo neurriak ezarriz”. Gainera, lege-esparru horrek berak zehazten duenez, udalek ordenantzak argitaratzeko eta lehendik daudenak egokitzeko eskumenak dituzte, airea zaintzekeo eta zaratatik eta bibrazioetatik babesteko.

Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko araudi horietan oinarrituz, Durangoko Udalak airearen kalitatea hobetzekeo udal-plana onartu zuen 2007an, eta haren ostean, ingurumenaren gaineko eragina murriztekeo eta kalitate akustikoa hobetzekeo plana ere onartu zuen. Hala, haien bidez, udalerriko sektore eta jarduera ugaritan (industrian, zerbitzuetan, mugikortasunaren arloan, etxebizitza-sektorean...) zuzenketa-neurriak hartu beharra xedatu zuen.

Durangoko Udala aitzindaria da arlo honetan EAEn, eta udal-ordenantza hau prestatu du, herri barruko eraikuntza-lanek eragin txikiagoa izan dezaten airearen kalitatean eta zaratan; orobat, halako lanek hirugarren batzuei eragozpenik ez sortzekeo berariazkeo jarraibideak xedatzen ditu ordenantzak.

Gainera, amiantoaren eraginpean egoteko arriskuari aurrea hartzeko eta eraikuntza- eta eraisketa-lanen hondakinak kudeatzeko oinarrizkeo baldintzak ere ezartzen ditu. Alde horretatik, aplikatu beharrekeo araudiari lotzen zaio, baina Udalak hartzen du bere gain ikuskapen-lana egitekeo betebeharra.




Ordenantza hau egituratzeko, kontuan hartu da ea eraikuntza-lanek proiekturik behar duten, proiektu horretan zehatz-mehatz jasota gera daitezen bete beharreko eskakizun teknikoak, segurtasun-eskakizunak, ingurumen-arloko eskakizunak eta abar. Proiektua behar duten eraikuntza-lanei dagokienez, II. kapituluaren xedatu da zer eskakizun orokor bete behar dituzten udal-barrutian egiten diren eraikuntza-lan guztiek, eta III. kapituluaren berriz, zer eskakizun gehigarri bete behar dituzten, ingurumenean zer-nolako eragin-arriskua izan dezaketen kontuan izanik; hain zuzen ere, 13. artikulua zehazten ditu jardueren ingurumena kaltetzeko zer arrisku-maila duten. Proiekturik behar ez duten eraikuntza-lanei dagokienez, IV. kapituluaren arautu da berariazko zer eskakizun bete behar dituzten horrelako eraikuntza-lanek. Bestalde, V. kapituluaren hirugarren batzuei eragozpenik ez sortzeko eta kexarik ez izateko zenbait neurri zehaztu dira, eta VI. kapituluaren berriz, ikuskapen-lana arautu da. Azkenik, VII. kapituluaren ingurumen-arloko diziplina-araubidea eta zigor-prozedura ezarri dira.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 1., 2. eta 11. artikuluek xedatzen dute zer eskumen dituen Udalak ingurumen-arloan, eta ordenantza hau haiek erabiliz prestatu da; era berean, kontuan hartu da lege horretako 25.f), 26.1.d) eta 28. artikuluek ezartzen duten printzipioa, hots, toki-autonomiaren printzipioa, hain zuzen ere, printzipio horren bidez kudea baititzakete udalek autonomiaz euren interesak eta esku har baitetzakete eurengan zuzeneko eragina duten gaietan. Era berean, aipatutako legearen 123.1.d) artikulua arautzen duen eskumena ere, hots, Udalbatzak udal-ordenantzak onartzeko eta aldatzeko eskumena, erabili da ordenantza hau prestatzeko.

Eraikuntza-lan bakoitza egiteko planteatutako estrategiak funtsezko lau oinarri ditu: arrisku egoerei aurrea hartzea, arriskuak ezabatzea, babes-neurriak eustea eta informazioa ematea. Izan ere, udalbarrutian egiten diren eraikuntza-lanak herritarrek bizitzeko, ibiltzeko edo aisia emateko erabiltzen dituzten lekuetatik hurbil egiten dira, eta horregatik hartu dira kontuan oinarritzeko printzipio horiek, halakoetan kexa- eta eragozpen-iturri izaten baitira eraikuntza-lanak eta kaltetuen osasuna eta aldartea okertu baitetzakete.

Jakinik zer arriskutsuak diren herri barruko eraikuntza-lanak ingurumenaren ikuspegitik eta jakinik Espainiako estatuan eta munduko beste leku batzuetan ingurumenaren gaineko eragina leuntzeko neurriak hartzen ari direla, horrelako estrategiak ondo eta erraz aplikatzea lorpen handia izan daiteke; bada, airearen eta soinuaren kalitatea hobetu baitaiteke hartara eta eraikuntza-lanek sortutako eragozpenengatik kexak murriztu.



I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da Durangoko udal-barrutian egiten diren eraikuntza-lanei zer zuzenketa-neurri aplikatu behar zaizkien zehaztea eta eraikuntza-lanek ingurumenean eragin txikiagoa izateko tresna erraz bat ematea bai eraikuntza-lanen sustatzaileei eta kudeatzaileei bai Udaleko teknikariei, herritarrek atmosferaren kutsaduratik eta kutsadura akustikotik babesteko eta kaleko eraikuntza-lanek eragozpen gutxiago sortzeko.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Udal-barrutian egiten diren eraikuntza-lan guztiek bete behar dute ordenantza hau, Udalaren lizentzia edo onespena behar badute edo aurrez jakinarazi behar badira. Bi eraikuntza-lan mota bereizten ditu ordenantzak: proiektua behar dutenak eta proiekturik behar ez dutenak.

Ordenantzak zenbait baldintza orokor (II. kapitulua) ezartzen dizkie eraikuntza-lan guztiei, eta baldintza gehigarri jakin batzuk (III. kapituluak) Udalaren lizentzia edo baimena eskuratzeko proiektu bat behar duten eraikuntza-lanei.


Lan hauek daude salbuetsita:

1. Premiaz egin beharreko lanak, herritarrentzako oinarritzko zerbitzuetan —hala nola elektrizitate-, ur-, gas- edo telefono-zerbitzuetan— eta teknologia berriak erabiltzeko eta hedatzeko zerbitzuetan matxurak konpondu, eta zerbitzuak lehenbailehen berrazartze aldera.

2. Pertsonak eta ondasunak berehalako arrisku-egoeran ez egoteko eraikuntza-lanak.

3. artikulua. Definizioak

- **Arrisku-maila:** Lanen iraupena eta ingurunea kontuan hartuta, eraikuntza-lanek herritarrei zenbaterainoko arriskua eragin diezaieketen finkatzea (13. artikuluan zehaztu da).
- **Ingurune jendeztatua:** Lan-eremuaren mugatik 100 metro baino gutxiagora etxebizitza-eraikinak egotea.
- **Ingurune jendeztatu gabea:** Lan-eremuaren mugatik 100 metro baino gutxiagora etxebizitza-eraikinik ez egotea.
- **Eragin-matrizea:** Jarduera bakoitzaren eta jardueren ingurumenean izan dezaketen eraginaren arteko egokitasuna (I. eranskina).
- **Soinu-presioaren A maila jarraitu baliokide haztatua, LAeq,T:** Soinu-presioaren A maila jarraitu baliokide eta haztatua, dezibelekan emana eta T segundoko denbora-tartean neurtua. ISO 1996-1:1987 arauak definitzen du.



- **L1h:** Soinu-presioaren A maila jarraitu baliokide eta haztatua, dezibelekan emana eta 60 minutuko denbora-tartean neurtua. ISO 1996-1:1987 arauak definitzen du.
- **Neurketa-denbora adierazgarria:** Neurtu edo ezaugarritu nahi den zarata-iturriaren funtzionamenduaren ziklo oso bat gutxienez, LAeq,T neurketa-parametroaren egonkortasuna ziurtatuz. Etengabe martxan dauden zarata-iturriak neurtzeko, nahikoa izan daiteke minutu bat.
- **Soinu erasotzailea:** Azken islapenaren —soinu-presioaren maila erregistratzen den fatxadari dagokion islapenaren— efektua alde batera utzita ateratzen den soinu-presioaren maila.
- **Konposatu organiko lurrunkorrak:** Presio estandarra 101,3 kPa-koa dela 250 °C-ko edo hortik beherako hasierako irakite-puntua duen edozein konposatu organiko.
- **Ke beltza:** Airean esekita irauteko behar bezain txikiak diren partikula beltzak. Gehienak ikatzezkoak dira.
- **Lanen arduraduna edo kontratista:** Bere giza baliabideak eta baliabide materialak edo besteren batenak erabiliz eraikuntza-lan baimenduak egiteko betekizuna bere gain hartzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Eraikuntza Antolatze Legea bete behar duten eraikuntza-lanei dagokienez, eraikitzailea da lanen arduraduna.

II. KAPITULUA. ERAIKUNTZA-LAN GUZTIEK BETE BEHARREKO ESKAKIZUN OROKORRAK

4. artikulua. Ordutegia

Oro har, 08:00etatik 21:00etara egin daitezke eraikuntza-lanak, eta, larunbatetan, 09:00etatik 15:00etara.

Igandeetan eta jaiegunetan ezin da eraikuntza-lanik egin.


Lanak egiteko makineriak itzalita egon behar du 20:00etatik hurrengo eguneko 08:00etara.

Zerbitzuak eta kanalizazioak instalatzeko eraikuntza-lanak 08:00etatik 18:00etara egin behar dira ingurune jendeztatuetao kaleetan.

Ingurune jendeztatueta, 13:30etik 15:30era ezin da egin eraisketa- eta zulaketa-lanik, eta horrelako eraikuntza-lanak 20:00etarako amaitu behar dira.

5. artikulua. Lanen prestakuntza


- Babes-hesiak jarri behar dira eraikuntza-lanen euren edo lan-eremuaren inguruan, lan-eremua mugatzeko eta hautsa eta beste material batzuk ez irteteko.



- Hesiak lur-arrasetik 2 metrora iritsi behar dute gutxienez. Material berrerabilgarriak izan behar dute, eta opakuak edo oso sarriak, hautsa ez barreiatzeko.
- Ondo finkatu eta mantendu behar dira hesiak, elkarren kontra jotzen dutenean zaratarik ez egiteko moduan.
- Aldamio finkorik jarri behar bada fatxadak zultatzeko, garbitzeko edo pintatzeko, olanazko estalki zultatu bat edo sare-moduko estalki bat (suaren kontrakoa) jarri behar da aldamio osoaren inguruan.
- Aldi baterako zangak estali behar badira ibilgailuak edo oinezkoak dabiltzan lekuetan, xafla metalikoak jarri behar dira, eta xaflek elkar ez ukitzeko edo zoladura ez ukitzeko elementuak erabili behar dira, zaratarik egin ez dezaten ibilgailuak edo oinezkoak pasatzen direnean.
- Bildutako materiala eremu hesituaren edo lan-eremuaren barruan kokatu behar da, eta behar bezala estali.
- Lanak egiten hasi aurretik, haien arduradunak edo kontratistak egiaztatu behar du ea amiantoaren eraginpean egoteko arriskurik dagoen eta, amiantodun materialik badago, lan-plangintza prestatu behar du. Plangintza hori onar dadin, ezinbestekoa da 2006ko martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuarekin edo hura ordezkatzeko duen araudiarekin bat etortzea, dekretu horretan ezarri baitziren amiantoaren eraginpean egoteko arriskua dagoen eraikuntza-lanetan bete beharreko gutxienezko segurtasun- eta osasun-eskakizunak.

6. artikulua. Ibilgailuak eta makineria

- Makineriak eta ibilgailuek ezin dute batere ke beltzik isuri.
- Lanak egiteko erabiltzen diren makina eta ibilgailu guztiek EE homologazio-egiaztagiria edo EE adostasun-egiaztagiria izan behar dituzte baita gehieneko potentzia akustikoa adierazten duen plaka ere, 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluekin bat, artikulua horretan xedatzen baita makineriak 2002ko otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretua bete behar duela.
- Honako ezaugarri hauek izan behar ditu eraikuntza-lanak egiteko erabiltzen den makineriak:
 - o Errekuntza-motorrek ibilgailuak eduki behar dituzte errekuntza-gasen irteeretan, baita ahalik eta zarata gutxien egiteko eta ahalik eta gutxien bibratzeko sistemak ere.
 - o Mailu pneumatikoek (autonomoak direnek eta ez direnek) airearen sarrera eta irteera isiltzeko mekanismo bat eduki behar dute.



- o Konpresoreek eta gainerako makineria zaratatsuek, martxan daudenean, kapoteak itxita eduki behar dituzte eta elementu babesgarri guztiak instalatuta, zarata moteltzeko. Fabrikatzaileak berak hala prestatuta eduki ditzake edo, bestela, ondoren egin daitezke doikuntza horiek.
- o Iragazkiak instalatu behar dira 37 kW-tik gorako potentzia duen makinerian.
- Lanak egiteko erabiltzen diren ibilgailuek eta makinek 9. artikuluan ezarritako gehieneko soinu-presioaren mailak bete behar dituzte.
- Ibilgailuen motorrek lanak egiteko behar-beharrezko denboran bakarrik egon behar dute martxan.
- Ibilgailuek 3 minututik gora geldirik egon behar badute, motorra itzali egin behar da.
- Lan-eremuaren barruan, ez da bat-batean azeleratu behar, eta motel ibili behar da.
- Ziurtatu behar da lanetan erabilitako ibilgailuek egiten duten zarata eta isurtzen dituzten gas kutsagarriak ez direla indarrean dagoen araudiak baimendutakoak baino handiagoak, eta halaxe egiaztatu behar du ibilgailuen azterketa teknikoak.
- Kontuz jardun behar da, makineriaren zarata (mailuen eta motorren zarata bereziki) isolatzen edo leuntzen dituzten elementuak ez ezabatzeko ez zuzenean ez zeharka.

7. artikulua. Kalean lanak egin bitartean kontuan hartu beharreko alderdiak


Hautsa sorrarazten duten lanak

- Egun lehorretan, lurra mugitu eta eraisketa-lanak egin bitartean, ureztatze-sistemaren bat erabili behar da. Ahal dela, lan-eremuko bertako ura berrerabiltzeko sistemetatik hartu behar da ura. Ostera, ura udal-saretik hartzen bada, ur-kontagailu bat instalatu behar du Ur Partzuergoak.
- Haizeak gogor jotzen duenean, ahal dela, ez da erabili behar hautsez betetako materialik edo hautsa sorraraz dezakeenik.
- Betiere, sistema hezeak erabili behar dira materiala ebakitzeko.

Hormigoi-garraioa

- Debekatuta dago hormigoia hormigoi-kamioietan garraiatzea, baldin eta kamioietako deskarga-ahoa ez badago hormigoia kalean ez isurtzeko gailu batez itxita.
- Debekatuta dago hormigoi-makinak kalean garbitzea.

Amiantodun materialak



- Amiantoia izan dezakeen materialen bat (zuntz-zementuzko hodiak, eta abar) aurkitzen bada eraikuntza-lanak egin bitartean eta eraikuntza-lanak egiten hasi aurretik ez bada horrelakorik gerta zitekeenik aurreikusi, eraikuntza-lanak bertan behera utzi behar dira eremu horretan, eta amiantodun materiala kentzeko plangintza bat onartu behar da, aplikatu beharreko araudia betetzen dela ziurtatuta.

8. artikulua. Eraikuntza-lanek eragindako zarata

- Ez da zaratarik egin behar, beharrezkoa ez bada. Soinuak inola ere ezin ditu gainditu ordenantza honetako 9. artikulua ezartzen dituen gehieneko mailak.
- Zaratak ordenantza honetako 9. artikulua ezartzen dituen gehieneko mailak gainditzen baditu, zuzenketa-neurriak edo zarata moteltzeko neurriak hartuko ditu Udalak.
- Udalak soinu-presioaren maila neurtzeko azterketa eska dezake, egiaztatzeko eraikuntza-lanek ez dutela egiten ordenantza honek baimentzen duena baino zarata handiagoa. Soinu-presioaren maila neurtzea agintzen bada, soinu-presioaren maila *in situ* neurtzeko ENAC egiaztageria duen enpresaren batek egingo du neurketa.

9. artikulua. Soinu-presioaren mailak

Ordenantza honetan jasotzen diren soinu-presioaren mailen neurketa guztiak zuzendu egin behar dira azpiko zaratari dagokionez:


- Neurketa baliozkoa izan dadin, zarata-iturriak egiten duen zarata baino 3 dBA baxuagoa izan behar du gutxienez azpiko zaratak.
- Soinu-presioaren mailen artean 3 dBA eta 10 dBA arteko aldea badago zarata-iturria martxan dagoenetik itzalita dagoenera, zuzenketa hau egin behar da zarata-iturriak zenbaterainoko soinua egiten duen jakiteko:

AZPIKO ZARATAREN ARABERAKO ZUZENKETA						
SOINU-PRESIOAREN MAILEN ALDEA						
Aldea	< 3 dB	3-4 dB	> 4-5 dB	> 5-6 dB	> 6-8 dB	> 8-10 dB
Zuzenketa	-	2,5	2	1,2	1	0,5

Makineriak eragindako soinu-presioaren mailak

Honako baldintza hauek bete behar dituzte eraikuntza-lanetan erabiltzen diren makinek:

- Kanpoan erabiltzen diren makinaren soinu-presioaren maila (LAeq,T) ezin da 90 dBA baino izan handiagoa, makinatik 5 metroko distantziara eta euskarritik 1,2 metroko altueran neurtuta. Alde horretatik, T neurketa-denborak makinaren funtzionamenduaren adierazgarri izan behar du. Makina bereziren bat behar bada eta haren soinu-presioaren



maila xedatutakoa baino handiagoa bada, 10. artikulua arautzen duen baimen berezia eskatu behar da.

Kaleko lanen gehieneko soinu-presioaren mailak

Kalean egiten diren eraikuntza-lanen soinu-immisioaren maila ezin da 85 dBA baino handiagoa izan, hurbileneko eraikin sentikorrean fatxadatik neurtuta (etxebizitza-eraikinak, ikastetxeak, kultura-etxeak eta osasun-etxeak jotzen dira eraikin sentikortzat).

Honako baldintza hauetan neurtu behar dira soinu-presioaren mailak:

- LAeq1h neurketa parametroa neurtu behar da lan-jardun handieneko orduan, alegia hainbat eraikuntza-lan zatatzu batera egiten direnean eta zatatarik handiena dagoenean.
- Neurketak gutxienez 50 metroan behin egin behar dira, eraikuntza-lanen zatatapean dauden fatxadetan.
- Gehieneko soinu-presioaren maila soinu erasotzaileari dagokio, lurretik 2 metrora.

Soinu-erasotzailea aztertzeko, beharrezkoa da honako zuzenketa hauek egitea, mikrofonoa non dagoen kontuan izanik:

- Soinuaren neurketa fatxadatik 2 metrora edo hurbilago egiten bada, 6 dBA-ko zuzenketa aplikatu behar da.
- Soinuaren neurketa fatxadatik 2 eta 4 metro arteko distantziara egiten bada, 3 dBA-ko zuzenketa aplikatu behar da.
- Soinuaren neurketa fatxadatik 4 metrora edo urrunago egiten bada, ez da zuzenketarik aplikatu behar.


Etxebizitzan barruko eraikuntza-lanen gehieneko soinu-presioaren mailak

- Lanek etxebizitzetara transmiti dezaketen gehieneko soinu-presioaren maila (LAeq1m) 50 dBA-koa da.
- Zarataren eraginpean dagoen gelaren erdian neurtu behar da soinu-presioaren maila, lurretik 1,5 metrora, leihoak itxita daudela eta beste inongo zarata-iturrik neurketan eragin nabarmenik ez duela ziurtatuta.

10. artikulua. Baimen berezia

Gehieneko soinu-presioaren mailak gainditu ahal izateko salbuespena

Udal-agintaritzak baimen berezia eman dezakete, ordenantza honetan finkatutako gehieneko soinu-presioaren mailak bete behar izatek salbuesteko, arrazoi teknikoak direla medio gehieneko soinu-presioaren mailak betetzea ezinezkoa dela egiaztatzen bada.



Gehieneko soinu-presioaren mailak bete behar izatetik salbuesteko baimen horietan, zehatz-mehatz finkatu behar dira zer baldintza bete behar dituen jarduerak, gehieneko soinu-immisioaren maila gehienez zenbatekoa izan daitekeen eta soinu-immisioek zer ordutegi izango duten, betiere eraikuntza-lanen ezaugarriak kontuan izanik.

Lanak ordutegitik kanpo egin ahal izateko salbuespena


Udal-agintaritzak baimen berezia eman dezakete, eraikuntza-lanak ordenantza honetan finkatutako ordutegiaren barruan egin behar izatetik aldi baterako salbuesteko, baldin eta eraikuntza-lanen ezaugarriak direla medio edo behar bezala argudiatutako beste arrazoi batzuk direla medio jarduera guztiak edo jardueren zati bat xedatutako ordutegi orokorretik kanpo egin behar badira.

Lanen kontratistak txosten tekniko bat aurkeztu behar du baimen berezia eskatzeko, eta honako alderdi hauek adierazi behar ditu txostenean:

- Baimena eskatzeko arrazoia. Behar bezala argudiatu behar du zergatik den beharrezkoa eraikuntza-lanak ohiko ordutegitik kanpo egitea, eta, kasu bada, berariaz azaldu behar du obrak interes orokorrekoak direla edo herritarrentzako garrantzi berezia dutela.
- Lanen arduradunaren izena eta sakelako telefonoaren zenbakia.
- Datu hauek zehaztu behar dira:
 - a) Egin beharreko eraikuntza-lanak eta aurrez ikusitako faseak.
 - b) Ordutegi orokorretik kanpo erabili beharreko makineria.
 - c) Egin beharreko eraikuntza-lanen eta zarata-iturrien kokalekuaren planoak. Honako hauek zehaztu behar ditu planoak: hurbileneko erabilera sentikorrenetara (inguruko etxebizitza-eraikinetara, ikastetxeetara eta osasun-etxeetara) zer distantzia dagoen eta zenbatekoa den haietan soinu-presioaren maila, lan-jarduera handieneko orduan LAeq,T ebaluazio-indizearen arabera.
 - d) Zarataren eragina ahal bezainbat murrizteko proposatzen diren zuzenketa-neurriak.

11. artikulua. Garbiketa

- Udal-agintariek behar diren garbiketa-lanak egiteko eska diezaiokete arduradunari.
- Klean eragina duten eraikuntza-lanetan eta ibilgailuak sartu-irtenean ibiltzen direnetan, egunero garbitu behar da kalea, metodo heze baten bitartez.
- Kalea zikindu dezaketen ibilgailuen zamalanak eta sartu-irtenak amaitutakoan, kalea eta klean zikindutako elementuak garbitu behar dira, baita isuritako materialak ere, betiere ordenantza honetan xedatutako guztia beteta.



- Zikindutako eremua garbitu artean ibilgailuak lan-eremuan sartzea eta lan-eremutik irtetea debeka dezake udal-agintaritzak.


12. artikulua. Eraikuntza- eta eraisketa-lanetako hondakinen kudeaketa

Eraikuntza- eta eraisketa-lanetako hondakinak sortu eta kudeatzeko orduan, berariaz egin behar zaio kontu Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko 2012ko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuari edo hura ordezkatzan duen araudiari.

Aipatutako araudi horrez gain, honako eskakizun hauek ere beteko dira:

Edukiontzia eta zakuak

- Materiala lan-eremuaren barruan bildu behar da.
- Debekatuta dago kalean inolako material, hondakin edo zaborrik uztea.
- Materialak, hondakinak eta zaborra biltzeko, edukiontzia eta zakuak erabili behar dira.
- Eraikuntza- eta eraisketa-lanen hondakinen bolumena 5 m³-koa edo txikiagoa izango dela aurreikusten bada, eraikuntza- eta eraisketa-lanen hondakinetarako zakuak erabili behar dira, horrelako hondakinak biltzeko eta kentzeko.
- Edukiontzia eta zakuak lan-eremuko "garbigunean" kokatu behar dira. Bertan, hondakinak sailkatu eta bereizi egin behar dira, hondakinak gero errazago kudeatzeko, aplikatu beharreko araudiaren arabera.
- Hondakinak biltzeko edukiontzia kokatzeko, beharrezkoa da udal-lizentzia eskuratzea, edukiontzia lan-eremu hesituaren barruan kokatzeko izan ezik.
- Debekatuta dago hondakinetarako edukiontzia eta zakuak kalean uztea ostiraleko 18:00etatik hurrengo asteleheneko 08:00etara.
- Edukiontzia galtzadan badaude, espaloiko ertzetik 0,20 metrora egongo dira, lur gaineko urak galtzadatik pasatu ahal izateko.
- Edukiontzia kentzerakoan, eraikuntza-lanen arduradunak erabat garbi utzi behar du edukiontzien hartutako kale-zatia.
- Hondakinak mugitzerakoan, kontu handiz aritu behar da, hautsa ez barreiatzeko, eta, horretarako, edukiontzi estaliak, txirristak eta prozesu hezeak erabili behar dira.
- Edukiontzia bete ondoren, material egokiz egindako toldoz edo ehunez estali behar dira, erabat estalita gera daitezen eta beste batzuek etxeko zaborrak edo trasteak bertara bota ez ditzaten edota haizearen eraginez hondakinok barreia ez daitezen.
- Era berean, laneko ordutegia amaitutakoan estali egin behar dira edukiontzia.



- Hondakinak edukiontzia-aren goiko ertzetik 20 zentimetro irteten direnean, jaso egin behar dira, edukiontzia betetzen den egunean bertan. Udalaren edozein ordezkari hondakinak kentzeko eskatzen badu, gehienez lau ordukoa da hondakinak kentzeko epea.
- Edukiontziek garbi eta txukun egon behar dute beti, egoera ezin hobean eta guztiz begi-bistan.
- Kalea garbi izateko eta hondakinak erretiratzeko ordenantzan adierazitakoaren arabera kokatu behar dira edukiontziak.

Lurren eta hondakinen garraioa

- Lurra eta eraikuntza-lanen hondakinak garraiatzeko ibilgailuetako zama estalita egon behar du, materiala edo/eta hondakinak ez barreiatzeko.
- Lan-eremutik irtetean, ibilgailu astunen gorpilak eta azpia behar bezain garbi daudela ziurtatu behar da, eta, kamioiak lan-eremutik kanpo ibiltzen direnean, kale guztiak sakon garbitu behar dira, egunero. Gainera, zama guztiak olanaz edo sare estali behar dira.
- Ibilgailuekin zama-lanak egin bitartean, kalea ez zikintzeko neurriak hartu behar dira.

Amiantodun materialak

- Amiantodun materialak kentzeko, garraiatzeko eta kudeatzeko, aplikatu beharreko araudian (396/2006 Errege Dekretuan) ezarritako eskakizunak beteko dira.

III. KAPITULUA. PROIEKTUA BEHAR DUTEN ERAIKUNTZA-LANEK BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK


13. artikulua. Arrisku-mailak

Lanak ingurumenean duten eragina kontrolatzeko eta ahal bezainbat murrizteko neurri egokiak ezartze aldera, lau motako eragin-arriskuak bereizi dira, eraikuntza-lanak zenbat irauten duten eta zer ingurunetan eragin dezaketen kontuan izanik:

a) Arrisku txikia. Lanak hiru hilabete edo gutxiago irautekoak dira, eta ingurunea ez dago jendeztatuta.

b) A motako arrisku ertaina. Lanak hiru hilabete baino gehiago irautekoak dira, eta ingurunea ez dago jendeztatuta.

c) B motako arrisku ertaina. Lanak hiru hilabete edo gutxiago irautekoak dira, eta ingurunea jendeztatuta dago.




d) Arrisku handia. Lanak hiru hilabete baino gehiago irautekoak dira, eta ingurunea jendeztatuta dago.

Lanak zer ingurunetan eragin dezaketen neurtzeko, lan-eremuaren kanpo-perimetroaren eta hurbilen dagoen etxebizitza-eraikinaren fatxadaren arteko distantzia erabiltzen da parametrotzat; hala, distantzia hori 100 metrotik gorakoa bada, ingurunea jendeztatu gabe dagoela jotzen da, eta, 100 metrotik beherakoa bada, berriz, ingurunea jendeztatuta dagoela.

14. artikulua. Eraikuntza-lanak hasi aurretik aurkeztu beharreko dokumentuak

Eraikuntza-lanak egiten hasi aurretik, “lanak egin bitartean ingurumena hobeto zaintzeko azterlana” erantsi behar zaio udal-espedienteari. Honako eduki hau izan behar du azterlanak:

- Kontratistaren datuak (enpresaren izena, IFK, helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa).
- Harremanetarako pertsonaren datuak (izena, NAN zenbakia, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa).
- Lan-eremuaren planoak eta deskripzioak. Eraikuntza-lanaren arabera, honako elementu hauek non dauden adierazi behar da:
 - o Lan-eremuko “garbigunea”.
 - o Txabolak, haien ur-hartuneak eta hustubideak eta sare orokorrerako konexioak.
 - o Ibilgailu astunen sarbideak.
 - o Materialak biltzeko gunea.
 - o Garabia ezartzeko gunea.
 - o Ibilgailuen gorpilak eta zikindu daitezkeen gainerako atalak garbitzeko gunea.
 - o Aldian-aldean ureztatu beharreko guneak.
 - o Ur-hartuneak eta ura berrerabiltzeko guneak.
 - o Aldi baterako elektrizitate-hartuneak.
- Lanak egin bitartean erabiliko diren makinak zerrenda.
- Kontratistaren erantzukizunpeko aitorpena, amiantoaren eraginpean egoteko arriskuari buruzkoa. Amiantoaren eraginpean egoteko arriskurik badago, laneko agintaritzak onartutako lan-plangintza ere jasoko da.



- Lan-plangintza (lanen deskripzioa egingo da, eta, horren barruan, ordenantza honetako I. eranskinean aipatzen diren jardueren iraupena zehaztuko da).
 - Airearen kalitatean eragina duten jardueren deskripzioa; horrez gain, egin beharreko eraikuntza-lanen arabera, II. eranskinetik erabilgarri diren zuzenketa-neurriak ere jasoko dira.
 - Zarata- eta bibrazio-iturrien deskripzioa; horrekin batera, eraikuntza-lanak nolakoak diren aintzat hartuta, II. eranskineko neurrien artetik har daitezkeen zuzenketa-neurriak ere zehaztuko dira. Pantaila edo panel akustikoak instalatzea beharrezkoa bada, 9. artikuluan finkatutako soinu-presioaren mailak beteko direla bermatzeko modukoak izan behar dute haien ezaugarriak.
- **Arrisku handia** dagoenean, beste hauek ere bai:
- Eragin akustikoari buruzko azterketa, fase bakoitzean eraikuntza-lanek eragingo duten zarata nolakoa izan litekeen finkatzeko. Honako eduki hauek jaso behar ditu azterketak:
 - o Egin beharreko eraikuntza-lanen eta zarata-iturrien kokalekuaren planoak. Honako hauek zehaztu behar ditu planoak: hurbileneko erabilera sentikorrenetara (inguruko etxebizitza-eraikinetara, ikastetxeetara eta osasun-etxeetara) zer distantzia dagoen eta zenbatekoa den haietan soinu-presioaren maila, lan-jarduera handieneko orduan LAeq,T ebaluazio-indizearen arabera.
 - o Zarataren eragina ahal bezainbat murrizteko proposatzen diren zuzenketa-neurriak.
 - Hirugarren batzuei eragozpenik ez sortzeko prebentzio-neurrien deskripzioa, 19. artikuluan zehaztutakoarekin bat.


15. artikulua. Arrisku txikiko eraikuntza-lanek bete beharreko eskakizun gehigarriak

Arrisku txikiko eraikuntza-lanek II. kapituluan araututako eskakizun orokorrak bakarrik bete behar dituzte.

16. artikulua. A motako arrisku ertaineko eraikuntza-lanek bete beharreko eskakizun gehigarriak

Ibilgailu astunek bide bakar batetik sartu behar dute lan-eremura, eta ahalik eta distantzia handiena utzi behar da sarreraren eta jarduera horien eraginpean egon daitezkeen artean. Sarbidea ez badago asfaltatuta, zolatu egin behar da bidea, hormigoia, asfaltoa, legarra, kautxu birziklatuzko lauzak eta abar erabiliz.

17. artikulua. B motako arrisku ertaineko eraikuntza-lanek bete beharreko eskakizun gehigarriak



Zulaketa-lanek eta antzekoek egunean hiru ordu baino gehiago iraun behar badute, 2 metroko hesia instalatu behar da ondoan, zarata ez barreiatzeko, eta zarata xurgatzeko eta isolatzeko egoki diren propietateak dituen material batez estali behar da hesia. Hain zuzen, III. eranskinak zehazten du gutxieneko zer eskakizun bete behar dituzten eraikuntza-lanen zarataren eragina murrizteko aldi baterako hesiek.

Materiala esku artean erabiltzerakoan (zerratzerakoan, ebakitzekoan, lixatzerakoan, ehotzerakoan, marrusketaz leuntzerakoan...), kontuz ibili behar da, materiala ez barreiatzeko, eta, horretarako, prozesu hezeak erabili behar dira (mahukak, ur-espraiak eta abar).

Hondakinak mugitu behar direnean (eraisketa-lanak egitean, lurra mugitzean eta abar), kontu handiz jardun behar da, hautsa ez barreiatzeko, eta, horretarako, edukiontzi estaliak, txirristak eta prozesu hezeak erabili behar dira.

18. artikulua. Arrisku handiko eraikuntza-lanek bete beharreko eskakizun gehigarriak

Lauzak eta egurra ebakitzeko eta hautsa sorrarazten eta zarata handia egiten duten jarduerak egiteko, berariaz horretarako prestatutako eremuak erabiliko dira.

Horrelako eremuek itxiturak eduki behar dituzte alboetan eta estalki bat gainaldean, horien bidez soinua gutxienez 20 dB jaisteko indize haztatua lortzeko.

Ezin da erabili barne-errekuntzako elektrizitate-sorgailurik; aitzitik, elektrizitate-sarera egin behar dira konexioak.


19. artikulua. Hirugarren batzuei eragozpenik ez sortzeko prebentzio-neurriak

Zirkulazioa eten behar bada, berariazko baimena eskuratu behar da.

Eraikuntza-lanen kontratistak, Udalarekin koordinatuta diharduela, espresuki ziurtatu behar du lan-eremuaren inguruan behar den moduko mugikortasuna eta segurtasuna dagoela. Horretarako, honako hauek instalatu behar ditu:

- Oinezkoentzako pasabideak. Behar bezala seinaleztatuta egon behar dute, eta ondo babestuta eraikuntza-lanen jardueretatik, isurketetatik eta lan horietan askatzen diren elementuetatik.
- Ibilgailuetarako ordezeko bideak, baldin eta lanek aldaketak eragiten badituzte udalerriko betiko sarreretan edo batez besteko zirkulazioa gehiegi handiarazten badute lan-eremuaren inguruan.
- Aldi baterako arrapalak eta xaflak, oinezko guztien mugikortasuna ziurtatzeko.
- Lan-eremuaren inguruko saltoki eta etxebizitza guztietarako sarrera egokiak.

Lanak **arrisku handikoak** badira, inguruan bizi diren edo jarduerak egiten dituzten pertsona guztiei informazioa emateko kanpaina diseinatu behar du eraikuntza-lanen kontratistak, eta



eraikuntza-lanak egiten hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago eman behar du lan horien berri.

Informazio-kanpaina hori egiteko, informazio-oharrak jarri behar ditu eraikuntza-lanen eraginpean dauden eraikinen atondoetan eta saltokietan, eta bulegoteknikoa@durango-udala.net helbide elektronikora ere igorri behar ditu oharrok.

IV. KAPITULUA. IKUSKAPENA, ZAINTZA ETA KONTROLA

20. artikulua. Neurriak betetzen diren ikuskatzeko lana

Eraikuntza-lanek lan-eremuaren inguruan ahalik eta eragin txikiena izateko bete beharreko eskakizunak betetzen dituztela bermatuko du Udalak.

21. artikulua. Kautela-neurriak

Dagokion zigor-espedientea abiarazteko oztopo izan gabe, Udalak honako kautela-neurri hauek ezar diezazkieke arau-haustetzat sailkatutako egitateen ustezko arduradunei:


- a) Lanak bertan behera uztea.
- b) Tresnak, ekipamendua edo ibilgailuak zigilatzea.
- c) Tresna eta makinetatik ingurumenari edo pertsonen osasunari kalte egiten dieten elementuak edo piezak kentzea.

Funtzionarioek beren ikuskatze-lanaren barruan legez kontrakoak izan daitezkeen egitateak antzematen badituzte, salbuespen gisa, interesdunei entzun gabe har ditzakete kautela-neurriak, baldin eta berehalako kautela-neurriak hartu behar badira egitate horiek amaiazteko, berriz ez gertatzeko, haiek eragindako kalteak eteteko edo kalteak murrizteko.

Zigorra jartzeko eskumena duen organoak, zigor-prozedura abiarazteko egintzan, kautela-neurriak baliogabetu, mantendu edo aldatuko dituen zehaztu behar du, horretarako zioak emanik beti. Kautela-neurriak hartu eta lau egunean ez bada zigor-prozedura abiarazten, kautela-neurri horiek iraungi egingo dira.

22. artikulua. Betearazte subsidiarioa

Lanen arduradunak uko egiten badio ezartzen dioten zuzenketa-neurriren bat hartzeari, udal-agintaritzak berak bete dezake subsidiarioki dena delako zuzenketa-neurri hori, aurrez eraikuntza-lanen arduraduna horren gainean ohartarazita, eta zuzenketa-neurriaren kostuak eraikuntza-lanen arduradunak ordaindu beharko ditu, bere kontura; gainera, premiamendubidetik eskatu ahal izango zaio kostuak ordaintzea.



V. KAPITULUA. ZIGOR-ARAUBIDEA

23. artikulua. Arau-hausteak eta zigorrak

Ordenantza honek xedatzen dituen zuzenketa-neurrien kontrako egiteak eta ez-egiteak arau-hauste administratiboak dira.

23.1. artikulua. Arau-hauste arinak


Arau-hauste arinei **200 eta 750 euro arteko isuna** dagokie. Honako hauek jotzen dira **arau-hauste arintzat**:

- a) Lan-eremuan ezbeharririk ez gertatzeko beharrezko babesgarriak, hesiak eta xaflak ez edukitzea.
- b) Hondakinetarako zakuak edo/eta edukiontziak horretarako ezarritako epearen barruan ez kentzea.
- c) Beharrezkoa denean ureztatze-sistemak ez erabiltzea.
- d) Hautsa erraz barreiatzen den egoeretan (haizeak gogor jotzen duenean) hautsa sorrarazten duen materiala mugitzea.
- e) Hormigoia garraiatzeko baldintzak bete gabe, hormigoia garraiatzea.
- f) Lanak egiteko erabiltzen diren materialak kalean uztea eta ezarritako eskakizunak ez betetzea.
- g) Bide zolatuak nahitaezkoak izanik ere, zolatu gabeko sarrerak erabiltzea.
- h) Zulaketa-lanek eta antzekoek egunean hiru ordu baino gehiago irautea, eta lan-eremu horren ondoan zarata barreiatzeko 2 metroko hesirik ez instalatzea.
- i) Berariaz prestatutako lekuetan egin beharreko jarduerak horrelako lekuetan ez egitea, eta eraikuntza-lanek ordenantzan xedatutakoa ez betetzea.
- j) Materialak biltzeko arauak ez betetzea.
- k) Ordenantzaren gainerako xedapenak ez betetzeagatik bestelako arau-hauste arinak egitea.

23.2. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriei **751 eta 1.500 euro arteko isuna** dagokie. Honako hauek jotzen dira **arau-hauste larritzat**:

- a) Lanak baimendutako ordutegitik kanpo egitea edo makineria baimendutako ordutegitik kanpo erabiltzea, horretarako baimen berezirik izan gabe.




- b) Ke beltza isurtzea.
- c) Ordenantzak ezartzen dituen gehieneko soinu-presioaren mailak gainditzea.
- d) Jardunbide desegokien ondorioz, makinek egiten duten zarata (bereziki, mailuek eta motorrek egindakoa) isolatzeko edo leuntzeko elementuak ezabatzea.
- e) Makinen gehieneko potentzia akustikoa adierazten duen egiaztagiri edo plakarik ez izatea.
- f) Kalea zikindu dezaketen jarduerak amaitutakoan, lan-eremua edo lan-eremutik kanpo zikindutako eremuak ez garbitzea.
- g) Kalean hondakinetarako edukiontziak instalatzea, horretarako udal-lizentziarik izan gabe.
- H) Ibilgailuetan lurra eta hondakinak garraiatzeko orduan materialak ez barreiatzeko eta hautsik ez harrotzeko ordenantzak ezarritako baldintzak ez betetzea.
- i) Gurpilak eta kamioiak garbitzeko sistemarik ez edukitzea —ez ordenantzan ezarritako sistemak edo udal-teknikariek kasuan-kasuan zehaztutakoak—.
- j) Ez bermatzea lanetan erabilitako ibilgailuek egiten duten zarata eta isurtzen dituzten gas kutsagarriak ez direla indarrean dagoen araudiak baimendutakoak baino handiagoak, ibilgailuen azterketa teknikoak egiaztatu behar duen moduan.
- k) Fatxadak zulatzeko, garbitzeko edo pintatzeko lanetan, aldamio finkoen inguru osoa olanaz ez estaltzea.
- l) Materiala esku artean erabiltzen denean (zerratzean, ebakitzean, lixatzean, ehotzean, marrusketaz leuntzean...) hautsa ez barreiatzeko metodo hezeak ez erabiltzea.
- m) Eraisketa-lanak egitean eta lurra mugitzean hautsa ez barreiatzeko sistemarik ez edukitzea (edukiontzi estaliak, prozesu hezeak eta abar).
- n) Ordenantzak arrisku handiko lan-eremuen inguruko mugikortasunari eta segurtasunari buruz xedatzen duena ez betetzea.

23.3. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriei **1.501 eta 3.000 euro arteko isuna** dagokie. Honako hauek jotzen dira **arau-hauste oso larritzat**:

- a) Lanak igandeetan eta jaiegunetan egitea, horretarako baimen berezirik eduki gabe.
- b) Arrisku handiko eraikuntza-lanetan errekontza-sorgailuak erabiltzea.



- c) Malezian datuak isiltzea, faltsutzea edo manipulatzeara.
- d) Udal-teknikariek ematen dituzten argibideak ez errespetatzea edo betetzea.
- e) Betearazpen-aginduak ez betetzea.
- f) Amiantoaren eraginpean egoteko arriskuan egonda lan egitea, horrelako lanetan bete beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-eskakizunak bete gabe.

24. artikulua. Arduradunak


Lanen kontratista fisikoak edo juridikoak dira ordenantza honetan zehaztutako egiteen eta ez-egiteen arduradunak, egite edo ez-egite horiek doloaren zein arduragabekeriaren ondorio izan (azken horren barruan, aginduak ez betetzea ere dago jasota).

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraikuntza-lanak hasteko jakinarazpena ordenantza indarrean sartu ostean egin bada, ordenantza bete beharrekoa izango da lan horietan; era berean, eraikuntza-lanak egiteko lizentzia ordenantza indarrean sartu ondoren eskatu bada, orduan ere ordenantza hau bete beharrekoa izango da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost (15) egunera sartuko da indarrean.




I. ERANSKINA: proiektupeko lan-jarduerak ingurumenean izan dezaketen eragin-arriskuaren matrizea

ERAIKUNTZA-LANETAKO EGITEKOEK IZAN DEZAKETEN ERAGINA	Proiektupeko eraikuntza-lanak	
	Zarata	Airea
1. fasea: lan-eremuaren prestakuntza		
1.1. egitekoa: lan-eremua mugatzea	T	T
1.2. egitekoa: sarrerak eta pasabideak egitea	T	T
1.3. egitekoa: materiala biltzea	T	T
2. fasea: ibilgailu astunak eta makinak		
2.1. egitekoa: lan-eremuko sarrerak eta irteerak egitea	H	H
3. fasea: lan-jarduerak		
3.1. egitekoa: hondeatzea eta lurra mugitzea	E	H
3.2. egitekoa: mendixkak egitea eta lurra biltzea	T	H
3.3. egitekoa: materiala esku artean erabiltzea (ebakitzea, zerratzea, ehotzea)	H	H
3.4. egitekoa: hormigoia arbastatzea edo leuntzea	H	H
3.5. egitekoa: eraistea eta zulatzea	H	H
3.6. egitekoa: legarra eta harea erabiltzea	T	H
3.7. egitekoa: marrusketaz leuntzea eta lixatzea	H	H
3.8. egitekoa: pintatzea	E	E
3.9. egitekoa: soldatzea	E	E
3.10. egitekoa: asfaltatzea	E	H
4. fasea: garbiketa eta hondakinen kudeaketa		
4.1. egitekoa: hondakinak kentzea	T	H
4.2. egitekoa: hondakinak erretzea	-	H

H: Handia

E: Ertaina


T: Txikia



II. ERANSKINA: eraikuntza-lanak ingurumenean eragin txikiagoa izateko proposamenak

• AIREAREN KALITATEA


Jarduketa-fasea	Egitekoa	Herri barruko eraikuntza-lan mota bakoitza egiteko hartu beharreko zuzenketa-neurriak		Helburua
		LEHENGORATZEA/ MANTENTZEA	URBANIZATZEA	
Lan-eremuaren prestakuntza	Lan-eremua mugatzea	Hesi eraginkorrak jartzea lan-eremuaren edo/eta eraikuntza-lanen inguruan		Ahalik eta hauts gutxien barreiatzea lan-eremuaren ingurura
		-	Hesi sendoak finkatzea	
	Sarrerak eta pasabideak egitea	Bide zolatuak erabiltzea		Ibilgailuak pasatu ondoko berreskidura ahalik eta gehien murriztea
		Lan-eremuaren inguruko kaleak metodo heze baten bidez garbitzea (ekortzeko makina erabiltzea, beharrezkoa bada)		
		Bideetako estoldetan trabak ez jartzea		
		Bideak ikuskatzea		Kontrolatzea
		-	Gainazal gogorreko bideak eraikitzea	Berreskidura ahalik eta gehien murriztea
		-	Peraltea egitea, putzurik ez sortzeko	Ahalik eta materia gutxien pilatzea
	Materiala biltzea	Materiala lan-eremuaren erdian pilatzea, eta ahalik eta denbora gutxien izatea pilatuta		Ahalik eta materia gutxien pilatzea eta barreiatzea
Ibilgailu astunak eta makinak	Lan-eremuko sarrerak eta irteerak egitea	Ibilgailuak lan-eremutik irteten direnean gurpilak eta azpiak modu eraginkorrean garbitzea (ihinztatze-sistema finko edo mugikor bat erabili)		Ahalik eta materia gutxien barreiatzea
		Zama toldo batez estaltzea		Motorrek ahalik eta gas gutxien isurtzea
		Ibilgailuek 3 minutu baino gehiago geldirik egon behar badute, motorra itzaltzea (erralentian uztea ez da nahikoa)		
		Gas-isurketen maila egokia dela ziurtatzea (IAT aldekoa izatea)		Berreskidura ahalik eta gehien murriztea
		Lan-eremuaren barruan gehienez 30 km/h-ko abiadura ibiltzea, eta bat-bateko azeleraziorik ez egitea		
Lan-jarduerak	Hondeatzea eta lurra mugitzea	Garbiketa-metodo hezea erabiltzea, egun lehorretan bereziki		Materia pilatua ahalik eta gutxien isurtzea
		-	Mugitutako lurra aldi baterako estaltzea	
		Materiala beheragotik jariatzea, txirristak eta edukiontziak erabiltzea, eta guztia ezin hobeto estaltzea		
		-	Olana edo eraikuntza-landare-estalkia erabiliz mugitutako masak egonkortzea	
		Haizeak inguruan zer-nola jotzen duen aztertzea, eta, egoki bada, etenaldia ere egitea, haizeak gogor jotzen duenean		Ahalik eta materia gutxien barreiatzea
	Mendixkak egitea eta lurra biltzea	Lurra ahalik eta denbora laburrenean edukitzea metatuta		Ahalik eta materia pilatu gutxien isurtzea
		Mendixka txiki eta malda txikikoak egitea		
		Toldoak, zakuak edo edukiontziak erabiltzea, eta 20 zentimetro baino gehiago ez goratzea		




Jarduketa-fasea	Egitekoa	Herri barruko eraikuntza-lan mota bakoitza egiteko hartu beharreko zuzenketa-neurriak		Helburua
		LEHENGORATZEA/ MANTENTZEA	URBANIZATZEA	
		-	Haizeak inguruan nola jotzen duen aztertzea, eta mendixken neurriko hesiak egitea	Ahalik eta materia gutxien barreiatzea
	Materiala esku artean erabiltzea: ebakitzea, zerratzea, ehotzea	Ura baliatuz hautsa kentzeko sistemak instalatzea ekipamenduan Ekipamenduan iragazkiak edo hauts-erazgailuak instalatzea		Ahalik eta hauts gutxien sortzea
	Hormigoia arbastatzea edo leuntzea	Ezertan hasi baino lehen, gainazala garbitzea Sortzen den hautsa ekortzea Pantailak jartzea lan-eremuaren inguruan		Ahalik eta materia pilatu gutxien isurtzea
	Eraistea eta zulatzea	-	Hondakinak hezetzea	Ahalik eta hauts gutxien sortzea
	Legarra eta harea erabiltzea	Hezean prozesatzea, egun lehorretan bereziki		Ahalik eta hauts gutxien sortzea
	Marrusketaz leuntzea eta lixatzea	Iragazkiak erabiltzea Hautsa kentzeko teknikak erabiltzea (hala nola ur-espraiak)		Ahalik eta hauts gutxien sortzea
	Pintatzea	Solido ugariak pinturak eta itsasgarriak erabiltzea		Ahalik eta konposatu organiko lurrunkor eta usain gutxien isurtzea
	Soldatzea	Ingurumenari kalte txikiagoa egiten dioten ekipamenduak eta makinak erostea: kea biltzeko eta aireztatzeko sistema eraginkorrak, energia gutxi kontsumitzen, ke gutxi isurtzen eta soinu gutxi egiten dutenak		Ahalik eta ke eta gas kaltegarri gutxien isurtzea
	Asfaltatzea	Betuna gehiagi ez berotzea Arreta osoa jartzea, ustekabeko isuririk edo suterik ez gertatzeko		Ahalik eta ke eta gas kaltegarri gutxien isurtzea
Garbiketa eta hondakinen kudeaketa	Hondakinak kentzea	Toldoak, zakuak edo edukiontziak erabiltzea, eta 20 zentimetro baino gehiago ez goratzea Mankomunitatearekin hondakinak biltzeko beharrezko kudeaketa-lanak egitea		Ahalik eta materia pilatu gutxien isurtzea
	Hondakinak erretzea	Nolanahiko hondakinak erretzea debekatzea		Ahalik eta gas kaltegarri gutxien isurtzea

• **ERAGIN AKUSTIKOA**

Fasea	Egitekoa	Herri barruko eraikuntza-lan mota bakoitza egiteko hartu beharreko zuzenketa-neurriak		Helburua
		LEHENGORATZEA/ MANTENTZEA	URBANIZATZEA	
Lan-eremuaren prestakuntza	Lan-eremua mugatzea	Ibilgailuen joan-etorrirako ahalik eta leku gutxiena okupatzea (zirkulazioa ez oztopatzea)		Lanen beste fase batzuetako eragin akustikoa ahalik eta gehien murriztea
		Gutxienez metro bat garai diren hesi sendoak egitea (ahal bezain garaiak eraikuntza-lanen kokalekua eta ezaugarriak kontuan izanik)		
	Sarrerak eta pasabideak egitea	Inguruko ibilgailuen mugikortasunaren kudeaketan eragin txikiagoa duten bideak aukeratzea		Inguruko zirkulazioan eragin txikiagoa izatea, eta eraikuntza-lanak egiteko erabiltzen diren ibilgailuen/makinen sartu-irtenen eragina murriztea
		Ahal dela, sartu-irten guztiak pasabide bakarretik egitea, jarduera horien eraginpean egon daitezkeenengandik ahalik eta urrutien		



Fasea	Egitekoa	Herri barruko eraikuntza-lan mota bakoitza egiteko hartu beharreko zuzenketa-neurriak		Helburua
		LEHENGORATZEA/ MANTENTZEA	URBANIZATZEA	
	Materiala biltzea	Materiala non den erabiltzekoa, handik ahalik eta hurbilen kokatzea		Garraio-lanen ondoriozko eragin akustikoa ahalik eta gehien murriztea
Ibilgailu astunak eta makinak	Lan-eremuko sarrerek eta irteerak egitea	Lan-eremuaren barruan gehienez 30 km/h-ko abiaduran ibiltzea, eta bat-batean ez azeleratzea		Ibilgailuen joan-etorrien ondoriozko eragin akustikoa ahalik eta gehien murriztea
		Zamalanak kontuz egitea		Zamalanen eragina ahalik eta gehien murriztea
Lan-jarduerak	Hondeatzea eta lurra mugitzea	Materiala beheragotik erortzen uztea		Materialak erortzerakoan ahalik eta soinu gutxien egitea, eta materiala garraiatzeko joan-etorriak murriztea
		Materiala, lurra edo hondakinak biltzeko edukiontzien hondoa zarata moteltzeko material batez estaltzea		
		Materiala garraiatzeko, edukiera handiko palak eta garraio-makinak erabiltzea		
	Materiala esku artean erabiltzea: ebakitzea, zerratzea, ehotzea	Hesi bat erabiliz zarata heda dadin galaraztea, eta hesia igorleak eta hartzaileak elkar zuzenean ez ikusteko moduan jartzea		Jarduerak eragin txikiagoa izatea haien eragipean daudenengan
		Leku jakin batean egin beharreko ebakitze- eta zerratze-lanak lan-txabolaren barruan egitea		
		Traba gehien egiten den orduetan lanik ez egitea, eta 100 metroko unitate lineal berean aldi berean mota horretako jarduera bat baino gehiago ez egitea		
	Eraistea eta zulatzea	Hesi bat erabiliz zarata heda dadin galaraztea, eta hesia igorleak eta hartzaileak elkar zuzenean ez ikusteko moduan jartzea		Jarduerak eragin txikiagoa izatea haien eragipean daudenengan
		Traba gehien egiten den orduetan lanik ez egitea, eta 100 metroko unitate lineal berean aldi berean mota horretako jarduera bat baino gehiago ez egitea (ezta materiala esku artean erabiltzeko jarduerak ere)		
Zarata eragin dezaketen beste jarduera batzuk egitea	Hesi bat erabiliz zarata heda dadin galaraztea, eta hesia igorleak eta hartzaileak elkar zuzenean ez ikusteko moduan jartzea		Jarduerak ahalik eta eragin txikiena izatea haien eragipean daudenengan	
	Traba gehien egiten den orduetan lanik ez egitea, eta 100 metroko unitate lineal berean aldi berean mota horretako jarduera bat baino gehiago ez egitea (ezta zarata egin dezaketen beste batzuk ere)			
Garbiketa eta hondakinen kudeaketa	Hondakin solidoak kentzea	Hondakinetarako edukiontziak hondakinak sortzen diren lekutik ahalik eta hurbilen eta jardueren eraginpean daudenengandik ahalik eta urrutien kokatzea		Ahalik eta materia pilatu gutxien isurtzea



III. ERANSKINA: lan-eremuetako aldi baterako hesiek eragin akustikoa murrizteko bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak

- Lur-arrasetik gutxienez 2 metrora iritsi behar dute hesiek.
- Alboetan eta azpian ezin dute zulo edo pororik eduki, zarata ez hedatzeko.
- Mugikorrak edo/eta desmuntatzen errazak izan behar dute.
- RW soinu-murrizketaren indize haztatuak 20 dB-koa izan behar du gutxienez, UNE-EN-ISO 717-1 arauarekin bat.
- α_w soinu-xurgapenaren indize haztatuak 0,6koa izan behar du gutxienez, UNE-EN-ISO 11654 arauarekin bat.
- Zarata-iturritik ahalik eta hurbilen kokatu behar dira hesiak, betiere babestu nahi diren pertsonen —hots, jardueren eraginpean izan daitezkeenek— hesiak zuzenean ezin kusi ahal izateko moduan ezarrita.

